


GUGGENHEIM BILBAO **XX** 1997 2017

Prentsarako txostena



BILL VIOLA

ATZERA BEGIRAKOA « 17·6·30/17·11·9 «

Babeslea



Iberdrolak atsegin handiz egin du bat Guggenheim Bilbao Museoaren 20. Urteurrenaren ospakizunarekin. Gure erakundea Museoaren Babesle Estrategikoa da sortu zenetik, eta oraingo honetan, nazioarteko arte garaikideko artista garrantzitsuenetako baten erakusketa bikaina babestu dugu: Bill Violarena.

Erakusketak Violaren lan ugari barne hartuko ditu: joan den mendeko 1970eko hamarkadan egindako obretatik —garai hartan hasi zen artista bideoak lantzen—, azken hamarkadan egin dituen bideo-instalazio erraldoietaraino. Era horretan, bere ekoizpenean landu dituen gai desberdinak emango ditugu ezagutzera.

Ibilbide horretan ikusten da bere lanek berrogei urtean jasandako eraldaketa. Izan ere, ikus-entzunezko teknikek modu iraultzailean aurrera egin ahala joan da Viola aurrerakuntza horiek arlo artistikoan sartzen, aitzindari bikainen moduan.

Ikonografia iradokitzaile baten bitartez, jaiotzatik heriotzara suertatzen diren giza esperientzia unibertsalak jorratzen ditu bideoartistak. Bere arteak gizateriaren historiatic eta haren adierazpen kultural ezberdinetatik edaten du, eta, nagusiki, tradizio mistikoak hartzen ditu oinarritzat.

Artista estatubatuarraren gaineko erakusketa gauzatzeko Iberdrolak Museoari eskainitako laguntza harekin mantentzen dugun harreman estuaren baitan ulertzen da, bai eta gure jarduna gauzatzen dugun lurraldeetan artea eta kultura zabaltzeko dugun konpromisoaren baitan ere.

Guggenheim Bilbao Museoari nire zorionik beroenak eman nahi dizkiot, hogeitau betetzeaz gain erakusketa bikaina antolatu duelako. Sinetsita nago bisitariak izugarri gozatuko dutela Violaren aparteko proposamenez eta mundu osoan sortzen duten lilura berbera eragingo dietela.

Ignacio S. Galán
Iberdrolako Presidentea

Bill Viola: atzera begirakoa

- Data: 2017ko ekainak 30–2017ko azaroak 9
 - Komisarioa: Lucía Agirre
 - Babeslea: Iberdrola
-
- Hasierako zintetatik, Bill Violak denboraren nozioa, gure existentziaren esanahia eta munduan daukagun tokiaren esanahia bezalako gai garrantzitsuei heldu zien jada.
 - Milurteko berriarekin batera, eta horrek ekarritako bereizmen handiko teknologiak erabilita, Violak *Egunerantz aurrera eginez* (*Going Forth by Day*, 2002) bezalako instalazio monumentalak sortu ahal izan zituen; lan horretan, espazio berbera partekatzen duten bost horma-proiektzio handik ikusleari gonbita luzatzen diote, argian barneratu eta bizitza eta giza-existentziari buruz hausnarketa egiteko.
 - Azken hamarkadan zehar, Bill Violak bizitzako eraldaketa-prozesuetan, jaiotza-heriotza-berpizkundea zikloan eta momentu horien arteko espazioaren inguruan gogoeta egiten jarraitu du, zazpi kanaletako *Ameslariak* (*The Dreamers*, 2013) instalazioan ikus daitekeen bezala.

Guggenheim Bilbao Museoak *Bill Viola: atzera begirakoa* aurkezten du, gure garaiko artista garrantzitsuenetako baten inguruko erakusketa, alegia; bideoartearen garapenean aitzindaria izan da Viola, eta Museoan haren ibilbidean zehar bidaia tematiko eta kronologiko bat egiteko aukera izango dugu. Anbizio handiko erakusketa honek Violaren lanaren ikuspuntu osoa eta ikus-entzunezko arteak forma artistiko gisa izan duen bilakaera azaltzen du, eta Guggenheim Bilbao Museoak antolatu du, Iberdrolaren babesarekin.

Bill Viola (New York, 1951) 1970eko hamarkadaren amaieran hasi zen bideoartearekin esperimentatzen, Sirakusako Unibertsitateko (New York) Ikasketa Esperimentalen programan parte hartu ondoren. Bere irakasle Jack Nelson zen programaren zuzendaria. Sirakusan ezagutu zuen David Ross (bideoarteko kontserbatzailea), eta Peter Campus eta Nam June Paik *Media Art* deitutakoaren baitako pertsonaia ikonikoen laguntzaile gisa jardun zuen lanean Everson Museum of Art-en.

Mistizismoan, poesian, eta ekialdeko nahiz mendebaldeko filosofietan interesa zuen Violak, eta bideoaren baliabide teknikoak erabili zituen tresna gisa, giza izatea, jaiotza eta heriotza, aldaketa-prozesuak, berpizkundea eta antzaldaketa bezalakoak etengabe ikertzeko, bere obran nabarmenak diren gaiak, hain zuzen.

Bill Viola: atzera begirakoa erakusketak artistak bideoarekin izandako bere lehen esperientzietara egiten du atzera, eta kanal bakarreko zinta goiztiarrak erakusten ditu, *Lau abesti* (*Four Songs*, 1976)

eta *Urmael islatzailea* (*The Reflecting Pool*, 1977–79) kasu. Zinta horien eduki poetikoak denboraren nozioa eta horren deseraikitzea bezalako gai garrantzitsuak lantzen ditu, bai eta gure existentzia eta munduan dugun tokia ere.

1980ko hamarkadako lanetan, Kira Perov artistarekin batera lanean hasten denean — ordutik aurrera bere emaztea eta kolaboratzailea—, telebista bidez transmitituak izateko piezetan erabiltzeko irudiak biltzeari ekin zion. Kamera eta objektibo bereziak erabili zituen paisaia atzeman eta normalean gure pertzepziotik haratago dagoenaren irudiak grabatzeko. Garai hori 1990eko instalazioetarako trantsizioa ere bada; gela osoak okupatzen zituzten horiek, eta ikuslea irudian eta soinuan murgiltzen zuten. Bere lanetan elementu fisikoak gehitzen ere hasi zen. Violak gai espiritualekiko izan duen interes etengabea *Zerua eta Lurra* (*Heaven and Earth*, 1992) bezalako eskultura-objektuetan eta *Poliki biratzen den narrazioa* (*Slowly Turning Narrative*, 1992) bezalako instalazio handietan nabarmentzen da.

Milurteko berriarekin batera, eta horrek ekarritako bereizmen handiko teknologiak erabilita, Viola formatu txiki eta ertaineko piezak ekoizten hasi zen, *Pasioak* deituko zuen sailean. Emozioen inguruko ikerketa da sail hori, eta kamera geldoan eginda dago; 2001. urteko *Errendizioa* (*Surrender*) edo denboraren eta belaunaldien igarotzea erakusten dituen *Catherineren gela* (*Catherine's Room*) eta *Lau esku* (*Four Hands*) lanak barne hartzen ditu. Barne-barneko obra horien atzetik etorri ziren *Egunerantz aurrera eginez* (*Going Forth By Day*, 2002) bezalako instalazio monumentalak; horretan, espazio berbera partekatzen duten bost horma-proiektzio handik ikusleari gonbita luzatzen diote, argian barneratu eta bizitza eta giza-existentziari buruz hausnarketa egiteko.

Azken hamarkadan zehar, baliabide eta formatu desberdinen bitartez, Violak bizi-esperientziaren funtsa erakusten jarraitu du, *Errugabeak* (*The Innocents*, 2007), *Hiru emakume* (*Three Women*, 2008) eta *Ameslariak* (*The Dreamers*, 2013) lanetan uraren erabilerak modu adierazgarrian erakusten duen bezala. Halaber, bizi-esperientzia zehar egindako ibilbidea *Zerua eta Lurra* (*Heaven and Earth*, 1992) erakusketan hasi eta *Jaiotza alderantzikatua* (*Inverted Birth*, 2014) obran ere agertzen da, birjaiotza batekin.

IBILBIDEA ERAKUSKETAN ZEHA

204. galeria

Gela honetan *Lau abesti* (1976) lana ikus dezakegu: “alegoria forman aurkezten diren lau musika-istorio. Irudiak eta soinua norbanakoak inguruarekin daukan interakzioaren dinamika psikologiko/emozionalean oinarrituta uztartzen dira. Artistaren lanak dauzkan ezaugarri jakin batzuk obra goiztiar hauetan ikus daitezke jada, bertan errepikapena, mugimendu geldoa eta sakabanatze luzeak erabiltzen baititu. *Lebitazioa txatartegian* (*Junkyard Levitation*) lanak “buruak materiaren gainean” duen joko bisuala erakusten du, William Blaken poemengandik izena jasotzen duen *Xalotasun-abestiak* (*Songs of Innocence*) lanak, memoria, gainbehera eta heriotzaren arteko harreman bisuala gogora ekartzen duen bitartean.

Hortz arteko tartea (*The Space Between the Teeth*) Violaren muntaia-teknika bereziak tentsioa sortzeko duen modua esploratzen duen lana da, horretarako irudia eta soinua etengabe moztuz. Bere aldetik, norbanakoari eta masari buruz Carl Jungek idatzitakoari erreferentzia egiten dion tituluarekin, *Egia masaren indibiduazioaren bitartez* (*Truth through Mass Individuation*) lanean artistak berak ustekabeko ekintzak burutzen ditu inguruaren kontra —erasokorrak direnak batzuetan—. Ekintza horiek geldo gertatzen dira, gelditu arte, ekintza batek dena aldatzen duen une horri buruzko hausnarketa eragiteko.

205. galeria

Espazio honetako hiru lanetan, Bill Violak ikuslea bere pertzepzioen eta bere existentzia propioaren aurrean jartzen du, mekanismo desberdinen bidez. *Urmael islatzailea* (1977–79) obra goiztiarrean, artistak gelditutako mugimenduaren eta mugimendu jarraituaren arteko tentsioa sortzen du, argazkiaren eta pelikularen arteko kontraste bat: “norbanakoa mundu naturalean nola sortzen den deskribatzen du, irudi birtualen eta zeharkako pertzepzioen mundu batean bataiatzeko”.

Poliki biratzen den narrazioa (1992) lanean, pantaila birakari batek eszenaren erdian jartzen gaitu: alde batean azalera islatzaile bat du eta beste aldean proiektzioarako pantaila bat. Alde batetik, gizon baten aurpegiaren lehen plano bat erakusten du proiektzioak, gizona kantikak abesten entzuten dugun artean; beste proiektzioan, ispilu-antzeko aldean, proiektaturiko irudiak eta gure isla propioa erakusten dira. “Espazio guztia barnealde bilakatzen da, etengabe biraka ari den bere baitan murgildutako buru baten ezagutarezpenentzako gertu”.

Zerua eta Lurra (1992) lanak bizitzaren zikloan eta jaiotza eta heriotzaren banaezintasunean sakontzen du. Egurrezko zutabe batez eta aurrez aurre jarritako karkasa gabeko bi monitore txikiz osatutako eskultura-objektua da, beste monitore baten azalean islatzen diren irudiak erakusten dituen. *Zerua eta Lurra* lanean artistaren ama ikus daiteke, bere bizitzako azken astean, eta bere semea ere bai, jaio eta egun gutxira. Pieza honetan, “bizitzak eta heriotzak elkar islatzen dute, eta bata bestea hartzen du bere baitan”.

206. galeria

Muturreko baldintzetako basamortuko paisaia bat da gela honetan erakusten diren lanetako baten antzeztokia. *Chott el-Djerid* (1979) obran, Violak bideora egokitutako teleobjektiboko lenteekin egin du lan, gure ikuskeraren mugak gainditu eta beroak paisaian sortzen dituen ispilatzeak erregistratzeko, eskuarki gure garun propioaren begitazio direnak. Giza-presentzia funtsezkoa da *Ispilatzea* (*Mirage*) serieko lanetan; besteak beste, *Ertzetik ibilian* (*Walking on the Edge*), *Bizitzak* (*Lifespans*) eta *Enkontrua* (*The Encounter*) lanek osatzen dute saila, eta denak ala denak 2012an bereizmen handian grabatu ziren. Kolore aldaketa leunek eta desertuko argiek eszena itsugarri baten atze-oihal gisa balio dute, non pertsonaien arteko harremanak nola sortu eta urratzen diren ikusten dugun, haluzinaziozko paisaia ikaragarri honen bitarteko bidaia geldo eta luzeetan.

Beloak (*The Veiling*, 1995) lana *Buried Secrets* erakusketaren parte izan zen, eta Veneziako Biennaleko 46. edizioko pabiloi estatubatuarrean egon zen erakusgai. Tela finezko bederatzi kapa sabaitik behera daude eskegita, eta gizonezko bat eta emakumezko bat hainbat gau-paisaiatan erakusten dituzte. Aurrez aurreko aldeetatik proiektatuak, “irudiak [...] ez dira sekula ageri bideo-

sekuentzia berean. Irudien argia baino ez da zintzilikatutako beloetan nahasten dena". Artistak Errenazimentuko maisu handiek margoturiko lausodurak mugimendu, argi eta bizitzaz beteriko objektu bihurtu dituela ematen du.

207. galeria

Milurteko berriarekin batera, eta pantaila lauaren garapena baliatuz, Viola formatu txiki eta ertaineko lanak ekoizten hasi zen, *Pasioak* deituriko saila osatzeko. Sail horretan, bereizmen handiko teknologia hori *Catherineren gela* (*Catherine's Room*), *Lau esku* (*Four Hands*) edo *Errendizioa* (*Surrender*) lanetan hauteman daiteke, denak ala denak 2001. urtekoak.

Catherineren gela obrak XV. mendeko Sienako Andrea di Bartolo Cini margolariak margotutako bost partetako predelan hartzen du inspirazioa, Sienako Santa Katalina errezoan erakusten duenean hain zuzen. Bere lanean, Violak eguneko momentu desberdinetan emakume batek dituen ohiko errutinak aurkezten ditu bost paneletan, gela bakoitzeko leihotik barna urtaroak nola igarotzen diren ikusten dugun artean, eta "egun oso bat erregistratzen duen eszena, naturaren zikloetara lotua dagoen bizitzaren ikuspuntu zabalagoa bilakatzen da".

Lau esku lanean, "hiru belaunaldi desberdinetako —semea, gurasoak eta amona— kide desberdinen eskuen mugimenduen eredu sinbolikoek denbora-lerro bat marrazten dute, eta horrek egungo momentuan norbanakoen ekintza paraleloak, nahiz bizitzako garai desberdinei dagozkien mugimendu zabalagoak hartzen ditu barne". Egurrezko apal batean jarrita, eta argi-ilun nabarmen baten menpe, *Lau esku* laneako pantailek Errenazimentuko anatomia-azterlana dirudite. *Errendizioa* lanean, bi pantailen antolaera bertikalak irudien fusio bat sortzen du, eta ispilu batean emakumezko eta gizonezko baten isla ematen du aditzera. Hala ere, beren makurtzeak uraren presentzia erakusten du, "eta beren forma bisualak desegin egiten dira, argi eta kolore puruetako eredu abstraktuak osatzeko".

Gaubeila (*Night Vigil*, 2005/2009) obrako irudiak Richard Wagnerren *Tristan eta Isolde* operaren ekoizpen batekoak dira, 2004–05 urteetakoak. Erretroproiektaturiko diptiko honetan, gizonezko bat eta emakumezko bat, gauaren iluntasunak banatuta, bata bestearengana abiatzen dira, beren desira argitzen duen argiari jarraiki.

1995eko Veneziako Biennaleko *Buried Secrets* erakustaldian aurkeztu zen beste lanetako bat da *Agurra* (*The Greeting*). Lan horretan, horretarako propio eraikitako plato batean egin zuen lan artistak lehen aldiz, eta aktore eta tekniko profesionalak kontratatu zituen, Pontormo-ren *Bisitazioa* (1528–29) koadro manierista inspirazio iturri gisa zuen eszena bat sortzeko. Pinturetan bezala, Viola formatu bertikala erabiltzen du, eta kamera geldo batez baliatzen da hiru emakumeen gorputz-mintzairaren, beren emozioen eta beren arropetan haizeak eragindako mugimendu leunen xehetasunak erakusteko, argi-aldaketa ahulak dauzkan eszena batean.

209. galeria

Gela honetan dauden bi lanak, *Tristanen igoaldia* (*Mendiaren hotsa ur-jauzi baten azpian*) [*Tristan's Ascension* (*The Sound of a Mountain under a Waterfall*)] eta *Su emakumea* (*Fire Woman*), biak ala

biak 2005ekoak, Wagnerren *Tristan eta Isolda* operaren ekoizpen ikusgarria laguntzeko sortu ziren jatorrian. Artistak berak editatu zituen eszena horiek beranduago, eta soinu ere gehitu zien, lan autonomo gisa indarra izan zezaten. *Su emakumea* “hiltzorian dagoen gizon baten buruko begitik datorren irudi bat da. Pantaila handi batean, emakume baten silueta ageri da sugarretan dagoen horma erraldoi baten parean; aurrera egin ahala, gurutzean irekitzen ditu besoak, eta bere burua bere isla propioan uzten du erortzen [...] azalera islatzailea birrindu egiten da eta bere forma esentzial bilakatzen da, argi puruzko ondulazio leun batzuetan”. *Tristanen igoaldia* lanak, bere aldetik, “arimak heriotzaren ondoren abiatzen duen igoera deskribatzen du”. Gizonezko baten gorputz bat ageri da harrizko harlauza baten gainean etzanda, tanta txiki batzuk ikusgarri egiten hasi eta alderantziz dagoen ur-jauzi batetik ateratzen den uholde ozen bilakatzen dira, eta gizonaren gorputza desagerrarazi arte altxatzen dute.

203. galeria

Hiru lerro horizontaletan jarritako bederatzi pantailez osatua, *Ekintza zapuztuen eta keinu hutsalen kapera* (*The Chapel of Frustrated Actions and Futile Gestures*, 2013) lanak egunero behin eta berriz egiten ditugun ekintzen inguruan hausnartzera garamatza, eta baita gure haustura- eta aldaketa-beharraz ere. Pantailetak batean, Albert Camus-ek Sisifo mito greziarrari buruz idatzitako filosofia-entseguaren erreferentzia bat sartzen du artistak; harkaitz erraldoi bat beti eta beti mendian gora igotzera kondenatu zuten jainkoek Sisifo, gero berriz ere mendian behera nola erortzen den ikusteko, alferrikako keinuen frustrazioarekin.

Ura, *Errugabeak* (*The Innocents*, 2007) eta *Hiru emakume* (*Three Women*, 2008) lanetan presente dagoen elementua, bizitzaren eta heriotzaren, eta errealtatearen eta ametsaren arteko atalase bilakatzen da, eta bere ahalmen garbitzaileak itzalak hezur-haragizko figura bizi bilakatzeko balio du, hau da, haien jatorrizko mundu ilunera itzuli behar duten irudi.

Ameslariak (*The Dreamers*, 2013) lanean ibai baten ohandean murgildutako pertsona bat irudikatzen du zazpi pantaila bertikaletan bakoitzak, begiak itxita eta itxurazko bakean. “Urak haien gorputzen gainean ondulatzen du, eta gozoki animatzen ditu haien mugimenduak. Igarotzen den uraren soinuak espazioa betetzen du, ametsak gelan sartzen diren bezala”. Aitzitik, badirudi atsedena ez dela sekula iristen *Gizona hilezkortasunaren bila* / *Emakumea eternitatearen bila* (*Man Searching for Immortality* / *Woman Searching for Eternity*, 2013) laneako bi irudietara, zeinen forma biluziak granitozko bi harlauzatan proiektatzen diren. “Beren gorputzak arretaz esploratuz, argi txiki batek lagunduta, gaixotasun- edo deskonposizio-zantzuren baten bila ari dira”.

202. galeria

Egunerantz aurrera eginez (*Going Forth By Day*, 2002) Berlineko Deutsche Guggenheim museoaren enkarguz sortutako obra monumentala da. Bereizmen handiko bost bideo-proiektzio handiz osatua dago, eta giza-existentziari lotutako hainbat gai aztertzen ditu: indibidualtasuna, gizartea, heriotza eta berpiztea. Egiptoko *Hilen Liburua* testuaren itzulpen literaletik jasotzen du bere izena, “Egunerantz aurrera egiten duen izpiritua”. Arimak, behin gorputzaren iluntasunetik libro, eguneko argira ateratzeko behar duen gida da. Obraren bost parteak—“Suaren jaiotza”, “Bidea”, “Uholdea”, “Bidaia” eta “Lehen argia”—horman proiektatzen dira zuzenean, eta Giotto

(Paduako Scrovegni familiaren kapera) eta Luca Signorelli (San Brizioko kapera, Orvieto) Italiako Errenazimentuko artisten fresko-zikloak gogora ekartzen dituzte.

Violak momentura arte burututako tamaina handieneko ekoizpena da hau, eta laguntzaile profesionalak behar izan zituen horretarako: argazki-zuzendari bat, produktoreak, efektu berezietan adituak, argiztatzaileak, arte-zuzendariak, estilistak, eszena arriskutsuetarako adituak, soinu-ingeniariak, muntatzaileak, eta makina bat estra. Mugimenduan dauden bereizmen handiko irudien azken teknologia erabilita, Violaren ikuskerak gizakiaren funtsezko gaiak islatzen dituen istorio bat erakusten du bideoaren bitartez, artearen historian zehar zabal irudikatuak izan direnak.

208. galeria

Jaiotza alderantzikatu (*Inverted Birth*, 2014) lanak esnaeraren bost faseak aurkezten ditu, eraldaketa bortitz batzuen bitartez. Violak horrela deskribatzen du lana: “iluntasunean dago gizonezko bat, fluido beltz batean blai eginda, tanta batzuen soinu hutsak hutsik dagoen espazio batean behin eta berriz jotzen duen artean. Arian-arian, fluidoa hazi egiten da, mugimendua bizitu egiten da eta gorantz doan fluido uholde ozen bilakatzen da. Beltzaren etsipen ilunak beldurrari ematen dio bide, likido gorri bihurtzen denean, baina gizonak indartsu jarraitzen du. Likido zuriarekin iristen dira lasaitua eta nutrizioa, eta ur askatzailearen purifikazioa segidan. Azkenik, euri-lanbro leun batek, onarpena, esnatzea eta jaiotza dakartza berarekin. Fluidoek giza-bizitzaren esentzia bera irudikatzen dute: lurra, odola, esnea, ura eta airea, eta jaiotzetik heriotzara arte doan bizi-zikloa ere bai, alderantzikatu egin dena hemen, iluntasunetik argitasunerako transformazioan”.

*Testuan komatxo artean ageri diren esaldiak Bill Violaren aipuak dira.

DIDAKTIKA

BBK-k babestutako Didaktika proiektuaren bitartez, Museoak erakusketa bakoitza osatzen duten espazio didaktikoak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu, eta horrela, erakutsitako lanen ulermena eta harrera errazteko erreminta eta baliabideak eskaintzen dira.

Espazio didaktikoa

Bill Violari eskainitako espazio didaktikoan, eta *Irudiz josiriko bizitza* epigrafearen pean, bisitariak artistaren ibilbideari buruzko informazioa osatu ahal izango dute: New Yorkeko Sirakusako Unibertsitatean ikasten ari zela musika eta bideoarekin egin zituen esperimentazioetatik hasi, eta museoaren testuingurutik at geratzen diren guneetan —elizak, monumentuak eta antzokiak kasu— egindako elkarlan berriagoetara. Bere *Koadernoak* dira bere obren iturburu, eta toki nabarmena izango dute Bill Viola Studio-ko zuzendari exekutiboa den Kira Perovekin batera diseinaturiko espazio batean.

Informazio osagarri hau bigarren solairuko pasilloan eta 201. galerian aurki daiteke, eta *Going Forth By Day* proiektuko koadernoaren artxibo digital bat dauka bere barruan, baita artistari egindako elkarrizketetako pasarteak ere. Gainera, musika-proiektuetako pasarteak ere erakusten dira, Peter Sellarsek zuzendutako *Tristan und Isolde* operakoak kasu; izan ere, Violak ikus-

entzunezko ekoizpen ikaragarri bat sortu zuen ikuskizun horretarako. Bestetik, artistaren artxibo pertsonaleko obra eta argazkien aukeraketa baten inguruko azalpenak ere badaude, aipuen eta hezkuntza-testuen euskarri gisa.

Jarduerak

- Bill Violaren *Ez dakit zeren antza dudán* (*I Do Not Know What It Is I Am Like*, 1986) film luzearen proiektzioa (uztailak 6). Bill Violaren lehen metraje luzeko filma bideoan, animalia-kontzientziaren eta giza-transzendentziaren inguruko ikerketa da. Lucía Agirre erakusketako komisarioak egingo du aurkezpena.
- *Tiempos de Tránsito* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia (irailak 29)
Isabel María-k 2014ean zuzendutako dokumental honetan Bill Violak berak hartzen du parte, eta *The Passing* (1991) bere lanaren sortze-prozesua kontatzen du; lan horretan, bere bizitzan eta obran mugarri bat izango zuen amaren heriotzari buruz hitz egiten du artistak. Proiektzioa baino lehen zuzendariak aurkezpen bat egingo du, eta proiektzioaren ondoren, solasaldi bat egingo da bertaratutakoekin.
- John Hanhardt-en hitzaldia (urriak 26)
John Hanhardt, Smithsonian American Art Museum-eko zinema eta multimedien arte-ardurako laguntzailea, bideoartean aitzindari diren artisten erakusketetako komisarioa eta *Bill Viola* liburuaren egilea, artistaren obra eta sortze-prozesuaz arituko da, eta baita bideoarteak eta mugimenduan dagoen irudiak izan duen bilakaeraz ere, jaio zenetik gaur egunera arte.
- Sormen-saioa. Mugimenduan dagoen irudiarekin esperimentatuz (urriak 28 eta azaroak 4)
Mugimenduan dagoen irudiari buruzko tailer esperimentalak, non gaztetxoek beren grabazio propioak manipulatu eta editatuko dituzten. Gainera, 1960 eta 1970ko hamarkadetan lehenengo artistak nortzuk izan ziren, eta non eta noiz aritu ziren ere ezagutu ahal izango dute, Bill Viola edo Nam June Paik, adibidez.
- Madrilgo Teatro Real-en egindako *Tristan und Isolde* operaren proiektzioa (urriak 28), 2014ko ekoizpena.
Bill Violaren erakusketarekin batera, Richard Wagnerren opera hau proiektatuko da, Peter Sellarsek zuzendua. Bill Violaren lau orduko bideo bat hartzen du barne. Bertsio osoa Pariseko Opera Nazionalean estreinatu zen 2005ean. Opera honetako bideotik eratorritako instalazioak, *Tristanen igoaldia* eta *Su emakumea*, erakusketa honetan ikus daitezke. Material grabatua eta proiektzioa Madrilgo Teatro Realen eskutik.

Partekatutako hausnarketak

Museoko profesionalek egindako bisita hauetan, publikoak muntaia-aren zirrikituak eta erakusketako beste xehetasun interesgarri batzuk ezagutzeko aukera izango du.

- Arte arduradunaren ikuspuntua: Lucía Agirre, erakusketaren komisarioa (irailak 20)
- Funtsezko kontzeptuak: Luz Maguregui, Hezkuntza koordinatzailea (irailak 27)

Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Bisitaldi laburrak

Doako bisitaldi laburren bitartez, eduki artistikoak modu zehatz eta dinamikoan ematen ditugu ezagutzera.

Katalogoa

Erakusketarekin batera, artistari eskainitako monografia bat aurkeztuko du Museoak, Kira Perovek editatua eta John Hanhardtek idatzia. Monografia horrek artistaren ibilbidea aztertzen du, Violak bere lan propioei buruz egiten dituen deskribapenetan sakonduz, eta bere praktika artistikoan funtsezkoak diren eragin bisual, literario eta izpiritualak azpimarratuz. Testuez gain, liburuki honek bere pieza nabarmenen ilustrazio anitzak dauzka, eta bere *Koaderno*etako hainbat ohar eta hainbat bozetoren kopia ere bai, bere lan-metodoak argitzeko lagungarri direnak.

Azaleko irudia:

Ameslariak (The Dreamers), 2013 (xehetasuna)

Bideo-/Soinu-instalazioa;

Etengabeko erreprodukzioa

Antzezlea: Madison Corn

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak
Bill Viola: atzera begirakoa
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Prentsan erabiltzera bideratutako irudiek ondorengo zehaztapenak bete behar dituzte:

- Erakusketari buruzko artikuluetan bakarrik erabil daitezke.
- Osotasunean erreproduzitu behar dira, mozketarik, gainjartzerik edo manipulaziorik gabe.
- Irudiaren oina zerrendan agertzen den bezala adierazi, mesedez.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. *Hortz arteko tartea (The Space Between the Teeth)*, 1976

Lau abesti bildumatik, 1976

Bideo-sorta bilduma

Koloretan, soinu monoaurala, 33 min guztira;

9 min 10 s

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



2. *Urmael islatzailea (The Reflecting Pool)*, 1977–9

Bideo-zinta, koloretan, soinu monoaurala;

7 min

Antzezlea: Bill Viola

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



3. *Chott el-Djerid (A Portrait in Light and Heat)* [*Chott El-Djerid (Argizko eta berozko erretratu bat)*], 1979

Bideo-zinta, koloretan, soinu monoaurala;

28 min

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



4. *Poliki biratzen den narrazioa (Slowly Turning Narrative)*, 1992

Soinu-/Bideo-instalazioa;

Etengabeko erreprodukzioa

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Gary McKinnis



5. *Agurra (The Greeting)*, 1995

Bideo-/Soinu-instalazioa;

10 min 22 s

Antzezleak: Angela Black, Suzanne Peters, Bonnie Snyder

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



6. *Beloak (The Veiling)*, 1995

Bideo-/Soinu-instalazioa;

30 min

Antzezleak: Gary Murphy, Lora Stone

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Roman Mensing



7. *Catherineren gela (Catherine's Room)*, 2001

Koloretako bideoen poliptikoa bost monitore-panel zapalen gainean;

18 min 39 s

Antzezlea: Weba Garretson

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



8. *Errendizioa (Surrender)*, 2001

Koloretako bideoen diptikoa monitore-panel zapalen gainean; 18 min

Antzezleak: John Fleck, Weba Garretson

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



9. *Lehen argia (First Light)*, 2002

Bost panelez osatutako *Egunerantz aurrera eginez (Going Forth By Day)*, 2002) laneko bosgarren panela

Bideo-/Soinu-instalazioa;

34 min 30 s

Antzezleak: Melina Bielefeldt, Hector Contreras, Webi Garretson, Dan Gerrity, John Hay, Michael Eric Strickland

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



10. *Tristanen igoaldia (Mendiaren hotsa ur-jauzi baten azpian) [Tristan's Ascension (The Sound of a Mountain Under a Waterfall)]*, 2005

Bideo-/Soinu-instalazioa;

10 min 16 s

Antzezlea: John Hay

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



11. *Su emakumea (Fire Woman)*, 2005

Bideo-/Soinu-instalazioa;

11 min 12 s

Antzezlea: Robin Bonaccorsi

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



12. *Ekintza zapuztuen eta keinu hutsalen kapera (Chapel of Frustrated Actions and Futile Gestures)*, 2013

Bideo-/Soinu-instalazioa;

Etengabeko erreprodukzioa

Antzezleak: Tomas Arceo, John Brunold, Cathy Chang, John Fleck, Joanne Lindquist, Tim Ottman, Kira Perov, Valerie Spencer, Ivan Villa, Bill Viola, Blake Viola

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



13. *Ameslariak (The Dreamers)*, 2013 (xehetasuna)

Bideo-/Soinu-instalazioa;

Etengabeko erreprodukzioa

Antzezlea: Madison Corn

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



14. *Gizona hilezkortasunaren bila / Emakumea eternitatearen bila (Man Searching for Immortality/Woman Searching for Eternity)*, 2013

Bideo-instalazioa

Etengabeko erreprodukzioa;


18 min 54 s

Antzezleak: Luis Accinelli, Penelope Safranek

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov



15. *Jaiotza alderantzikatua (Inverted Birth)*, 2014

Bideo-/Soinu-instalazioa;

8 min 22 s

Antzezlea: Norman Scott

Bill Viola Studio-ren eskaintza

© Bill Viola

Argazkia: Kira Perov

